

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

55. zenbakia

94ko urriak 7



Santafetako zita Zaldibian



**Euskadi berritzearekin
elkar zaitez.**



GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 161463.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:
 Josune Agirre, Argider Mujika.
Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.
Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
 Rufino Iraola, Aloña Galarraga,
 Joseba Telleria, Iñaki Murua,
 Mari Joxe Madariaga, Izaskun
 Salazar, Estitxu Imaz, Josune
 Amondarain eta Nagore Goi-
 buru.

Azaleko argazkia: R. Iraola
Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 3.700 ale. 3.300 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89
Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼

Kairoko Konferentzia eztabaidagai Ordizian



Ordiziako Udaleko Gi-
 zarte Ongizate sailak eta
 zenbait ONGk (Komite In-
 ternazionalistek, Bakea eta
 Hirugarren Mundua, Ma-
 nos Unidas, Mugen Gaine-
 tik eta Parrokiko Misio Tal-
 dea Erakunde Ez Guber-
 namentalek) "Populazioa
 eta Garapena" kanpaina
 burutu du, Goierriko jen-
 dea Hirugarren Mundua-
 rekin sentsibiliza dadin.

Kairoko Populazio eta Ga-
 rapenaren gainera III Mundu
 Konferentzia izan berria dela
 eta Barrena Kultur Etxera
 zenbait pertsonalitate (erli-
 jiosoak nahiz laikoak) ekarri
 ziren gaia eztabaida zezaten.
 "Mugen Gainetik"-eko
 Emilio Rodriguezek esan
 digunez, "gure sorpresa izan
 da denak kointziditu egin du-
 tela. Gaia zeharka hartu da
 Kairon; izan ere abortoaren
 gaiak hitz egin da, hor zentra-
 tu da eta hori azaldu da ko-
 munikabideetan: Batikanoa

eta Islamdar zenbait sektore
 bat datozela".

Mahai inguruan esan ze-
 nez, "benetako arazoa beste
 bat da: herrialde garatuak be-
 ren garapen-eredua 3. Mun-
 dukoei ezartzeko saioak egi-
 ten ari dira. Populazio politi-
 ka aitzaki gisa jarri dute; ja-
 kina, mundua oso populaturik
 dago, baina ebaluatu egin
 beharko litzateke zein den
 jaiotze-tasen hazkundera
 munduko herrialde ezberdi-
 netan eta ikusiko litzateke
 nola 3. Mundukoena jeisten
 ari den eta nola 1. Munduko
 dentsitate-demografikoa
 haundiagoa den. Benetako
 arazoak dira aberastasuna-
 ren banaketa desberdina eta
 3. Munduko herrienganako
 tratu txarragoa".

Ordiziakoan, abortoaren
 gaian ez ziren etorri guztiz bat
 Batikanoarekin; emakumeak
 edo familiak erabaki behar du
 bere sexu, hezkuntza eta fa-
 milia-planifikazioarekin zer
 egin; emakumeen esteriliza-
 zio masiboak, Banku Mun-
 dialaren dirulaguntzen bana-
 keta, e.a. salatu ziren. Azken
 batean, 3. Munduak eztanda
 egin dezan (emigrazio uhol-
 deak, e.a.) beldur den 1. Mun-
 du hau kritikatu zen. Azaro-
 abenduan arrazismoari bu-
 ruzko kanpaina bati ekingo
 diote.

 Jon Arano

Besteek esana

"Pasakalean 'siempre ha si-
 do y sera San Martin de Agirre
 hijo de Bergara' kantatzen zen,
 goierritarren batek Beasaingo
 zela uste bazuen ere, gauzak
 argi eta garbi utzi nahian edo".
"Berrigara" astekaria, irai-
lak 15.

Kilometroak 94

"Kilometroak-eko zirkuitua
 bertan zegoela erantzun, baina
 jendeak Ordiziara eta Beasai-
 nera joan nahi zuen iaz. Azke-
 nik Ordizia eta Beasaingo ta-
 bernariak sekulako negozioa
 egin zuten. (...)Garai batean,
 lehendabiziko mozkorra ha-
 rrapatzeko momentu aproposa
 aldameneko herriko festak
 izaten ziren bezala, orain Ki-
 lometroak eta Nafarroa Oinez
 dira. Autobusez goizetik koa-
 drilarekin joan eta eguerdirako
 sekulako legatza. Diru iturri
 bezala ere, sistema horrekin
 behera datorrela iruditzen zait.
Iñaki Muruak "Argia"n.

"Ordizira eta Beasainera
 Zaldibiatik etortzen nintzenean
 Castillan sartzen nintzela iru-
 ditzen zitzaidan. Orain dela 50
 urte, 10-13 urte nituen garaian,
 denek erdaraz egiten zuten. As-
 teazkenetan, feria egunean en-
 tzuten zen euskara".
Patxi Iraolak "Argia"n.

"Arazoa da Fernando Bue-
 sak oraindik esatea A eredu-
 ko ikasleak izan direla bikaine-
 nak. Hori da benetako arazoa".
Mikel Mendizabalek "Argia"n.

*Eusko Jaurlaritza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Gure arbaso ekologistak

Kontu egizu, ekologismoa oso zaharra da gure artean. Don Jose Maria Sukia apaiz zaldibitarren luma finak borobilduriko "Monografía histórica de Zaldibia" izeneko liburuan, "Asistencia de Zaldibia a las Juntas Generales de Guipuzcoa" atalean, atentzia eman didan gauza batekin egin dut topo. Gipuzkoako Batzar Nagusien egiteko eta aginpideaz diharduen paragrafoa da, eta, nire itzulpen librearen arabera, honela dio:

"Alkateek euren jardunean zuzen joka zezaten zaintzea Batzar Nagusien egitekoa zen, alkateengan baitzegoen herrien aginpide zibil eta kriminala. Batzar Nagusiek kontuak eskatzen zizkieten, euren jardun edo ekinbidean gehigeikeriarik izan ote zen aztertuz. Batzar Nagusien egitekoa zen baita gipuzkoarren itxurazko bizimodu edo eskuarte onaren alde saiatzea ere. Hori dela eta, 1583an, besteak beste, sagardoari ura botatzea debekatu zuten. 1670eko Batzar Nagusien bilkuran, berriz, botatzen zen arbola bakoitzeko bi aldatzeko agindua eman zen; gainera, zaharkiturik edota hondaturik ez zegoen haritzik botatzea debekatu egin zuten. Bestalde, Udalerriek aurrekontuen % 10a arbolak landatu eta zaintzeko erabili behar zuten. Eta 1738ko Batzar Nagusietan, arbola-mintegiak sortzera

behartu zituzten Udalerri guztiak". Ezin zitekeen kasualitate hutsa izan aintzinako gipuzkoar haien kontzientzia ekologista.

Rufino Iraola (Zaldibia)

Hauteskunde bezperetan

Nik ez dut botorik emango. Eta zuk? Orain artekoak ikusita, abstentzioa probokatuko bazenu? Baina noiz arraio sartuko ote zaizu norberaren esku dagoela den-dena? Inork ezin du ezer egin zugarik, nahastea eta explotatzea ez bada behintzat. Ez ala?

Baietz bada, gai zarela ttapa-ttapa egiteko bakar-bakarrik. Noizikuando muturrekoren bat? Altxa eta aurrera! Ziur izan buruzagi (buruan zagi) guztiak gezurretan ari direla. Zer dela-eta, uste duzu bada, jendearen *beharrean* aurkitzen direla? *bakardade* galanta baten menpe direlako, ez besterik. Jende hau oso-oso beldurtia da, itxuraz bestela agertuta ere. Zer dela eta bestela horrenbeste zaratotsa? Ixiltasunaren beldur baino ez direlako. Eta beldurak gerra baino ez dauka; nahiz hizkuntza, nahiz industria, nahiz... Bai, euren "Jakintza" osoa jendea zatitzen ematen dute. Ez ala?

Badakit hau eta gehiago dakizuna. Baina horregatik edota hargatik bis-

tan dagoena ez duzu ikusi nahi. Hori tranpa da eta hori da zure kartzela, bestelakorik badiozu ere. Ez la duzu bada *burujabetasuna* aldarrikatzen? Ea bada! Gezur gehiagorik ez. Kasurik ez, niri behintzat. Adi-adi egon, hori baino ez; datorren guztia entzuteko eta ikusteko. Guztia esan dut, ez interesaren arauera. Alde ederra!

Pello Sarriegi Urretabizkaia (Barrika)

Akatsak zuzenduz

Aurreko alean, Alkartasuna Lizeoari buruzko erreportaian egindako akatsa zuzentzera gatoz. Pribatuaren aldeko batzordeari zegokion elkarritzetan, "zein izan daiteke konponbidea?" galderan, honako zati hau "jan" genuen: "Aukera publikoaren aldeko apostua egin dutenek gauzak behar bezala ez zirela egin ezagutzea eta azken finean garrantzitsuen dena, 30 urtetan zehar beste Ikastolen ildotik funtzionatu duen Ikastola honek, aurrerantzean ere bide horretatik oso ondo funtziona lezakeela sines-tea, ahalegin horretan lankide iza-nez".

GOIERRITARRA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44
BEASAIN ORDIZIA

ARDOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —
E
— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 OLABERRIA (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)




Intereseko

Telefonia

eta Helbideak

Beasain eta Ordiziako Farmaziak

Laumaga:	881828
(Nagusia, 40-Ordizia)	
Cuesta:	880587
(Nafarroa Etor., 39-Beasain)	
Arriola:	880628
(Nagusia, 10-Ordizia)	
Urbizu:	880232
(Nagusia, 8-Beasain)	
Atorrasagasti:	882934
(La Paz Poligonoa-Ordizia)	
Azpilikueta:	880152
(Nagusia, 18-Beasain)	
Jauregi:	160949
(Sta. Maria, 2-Ordizia)	



Errezeta



Ana Sanzol eta Cris Larraonak emana Loinatz taberna Beasain

SALVA (Loinatz tabernako
tortila berezia)

Osagaiak: Kilo 1 patata, 2
tipula, 6 arraultza, 2 Cayena
pipermin

Patatak zuritu eta moztu,
tipula ere puska txikitari pi-
katu. Olioia zartagi batean

jarri, tipula txikitua gehitu
eta sutan jarri, tipula gorri-
tzen denean patatak gehitu
eta Cayenako pipermina
gaineratu pusketetan. Dena
egosten utzi. Patata eginda
dagoenean beste ontzi ba-
tera atera eta hozten utzi.

Arraultzak batitu, pata-
tekin nahastu eta tortila
egin, gehiegi lehortu gabe.



Bota bertsoa



Joxepa Madariaga Gaia: Pilarika eguna Doinua: Ari naizela, ari naizela

Aste barruko festa ari da
ate guztietan deika:
hil honetako hamabigarren
eguna da Pilarika,
pozik daukagu Guardia Zibila,
pozik da "benemerita"!
Ez dut ulertzen festa kontuan
euskaldunon politika...

Espainolisten festa urtero
ospatzen ari al gera?...
Proposamen bat egin nahi nuke
euskaldun naizen bezala,
tripako minez laister batean
lehertuko naiz bestela:
Pilar utzita pasa dezagun
guk festa San Migelera!

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfonia: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfonia: 88 80 29
BEASAIN

DE LA CUESTA

Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia

Plaza Nagusia, 7
880432

6 posta kutxa
ORDIZIA

LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 88 20 07 BEASAIN

Lana

□Ordiziar gazte langile baten edozein lan klase egingo luke: baserrian, eraikuntzan, soldaduran... 886732 telefonora dei, Alberto.

□Mekanografia lanak egiten dira ordenadorez. 882843 telefonoa, Eli.

Salerosketak

□Era guztietako itzulpenak egiten ditugu "Otsaila"n. Hizkuntzak: Euskara, frantsesa, ingelesa, gaztelera. Urdaneta, 15. Tfnoa.: 885109.

□GOIERRITARRAren kaximixetak salgai gure egoitzan (Ordiziako Dorre-etxean). Txuri-beltzak, XL, L eta M tailak aukeran, 1.000 pztan. Aldizkariaren ale atzeratuak ere oparitzen ditugu.

□Bi akumuladore estatiko 2.600 w-koak salgai dauzagu. Tfnoa.: 889651

Etxebizitzak

□Pisu bat behar da Ordizian alokatzeko. Dei 889074 telefonora.

BEASAIN

Urriak 7: Javier Juanesen diapositibak: "Euskalerrria: lanetik festara", Aizkorri Elkarte 20,00etan. **Hilak 9ra bitarte:** Iñaki Azanza-ren argazki erakusketa Kultur etxean. **14:** Javier Fernandez diapositibak: "Venezuela: Los Llanos", Aizkorri Elkarte 20,00etan.

UDAZKEN KULTURALA

Urriak 16: 9,00: Beasaingo III aire libreko pintura lehiaketa, Kultur Etxean. III Argazki rallyea Udaletxean. 16,30etan 'Non dago Wally' filmea La Sallen; 18,30etan, Larruzko piloten kaleko haurrentzako tailerra San Martin Plazan; 20,00etan Kontzertu-musikaldia musika zikloa: Xabier Lizaso eta Ludwik Udaletxeko Batzarre-aretoan. **17:** 9,00etan Matxe Paperaren eta Saloiko Dantzen ikastaroen matrikulatzeko epea irekiko da. 18,30etan haurren partxis txapelketa eta 19,30etan, Beasaingo Paperak bildumaren 3. zenbakiaren aurkezpena, Udaletxean. **Urriak 18:** 9,00etan VII. Errezil eta Postu Dotoretasun lehiaketa San Martin Plazan. 17,00etan haur eta

gaztetxoentzat kamisetak margotzeko tailerraren hasiera Ezkiaga Auzo Etxean. **19:** 17,00etan 'Emakumea eta Odol emaitza' hitzaldia EPAn. 18,30etan haurren Partxis txapelketa-jarraiaren. **20:** 22,30etan Jazz-Blueseko kafe-kontzertua Parkingson's taldearekin, Loinatz tabernan.

ORDIZIA

Urriaren 7a arte: Jokin Telleriaren pintura erakusketa Barrenan.

Extremadurako I Kultur Erakusketa: urriak 7, ostirala: "Extremadura" gaieko bideoak Barrenan 19,00etan; urriak 8, larunbata: Enparantza Nagusian, 11,00etan hasita 21,00ak arte: Extremadurako produktak ikusi eta erosteko aukera. 13,00 eta 18,30etan: Toloako "Flor de Jara" dantzatalde folkloriko eta Jakintza Dantza Taldearen ekitaldia. 20,00etan: Kontzertu korala Pontevedrako Nigrango Abesbatza Polifonikoaren eta Ordiziako Santa Ana Abesbatzaren kargu. Bi egunotan erakusketa bat egongo da Extremadurako produktuekin.

Beasain/Ordiziako Goardiazko botikak

Urriak 7-8-9: Laurnaga; **10:** Cuesta; **11:** Arriola; **12:** Urbizu; **13:** Atorrasagasti; **14-15-16:** Azpilikueta; **17:** Jauregi; **18:** Laurnaga; **19:** Cuesta; **20:** Arriola.

Mendizaleak

□Ordiziako Mendizaleak: **urriak 9:** beteranoen martxa Palentzian. **16:** Aralarreko mendien garbiketa.

□Idiazabalgo Mendizaleak: **urriak:** perretxikuak, erakusketa eta gastronomia. **8-9:** Urbasa (bi egun osoko ibilaldia bizikletan)

□Beasaingo Mendizaleak: **Urriak 9:** Toloño (1.263 m.)

Ordiziako Herri Antzokia

Ostirala 7, 10, 15 "Mentiras arriesgadas". **Larunbata 8, 7, 30-10, 15** "Mentiras arriesgadas". **Igandea 9, 4, 45** "Polí por casualidad", 7, 30-10, 15 "Mentiras arriesgadas". **Astelehena 10, 7, 30** "Mentiras arriesgadas". **Asteartea 11, 10, 15** "Papa-Nui". **Asteartea 12, 4, 45-7, 30-10, 15** "Papa-Nui".



Tfnoa: 885500 ORDIZIA

ITZUL TALDEA

Era guztietako itzulpenak egiten ditugu (gazt./eus. eus./gazt.) Goierriko denda, lantegi, e.a.-en zerbitzura. ☎ 160803 Faxes: 88 07 22

MUNDUATE Erlojutegia

TISSOT
Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

100 urte baino gehiago Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfnoa: 88 12 72

ORDIZIA



OTEGI-UNANUE

ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST Etxebizitzak berriak salgai Ordiziako Elkano kalean

Bekokale 17-1.

ITSASONDO

☎ 16 02 22

□“EUSKADI GAZTEA” IV MAKE-TA-LEHIAKETA

Euskal Herriko talde eta bakarlari guztiek parte har dezakete, LP-rik dutenak edo disko-kontraturik duten taldeak salbu. Beharrezkoa da gutxienez hiru kanta jasotzen dituen zinta bat bidaltzea. Maketak estudio edo entsaio lekukoak izan beharko dute. Ez dira itzuliko. Zintak, biografi-ohar eta zuzenbide-telefono, e.a.-ekin batera bidali beharko dira urriak 30aurretik Euskadi Irratira, Larremendi, 1-1goa, 20.006 Donostiara. Bi sari daude: 1.a: 600.000 pezetakoa (epai-talde aditu batek emana) eta 2.a: 250.000 pezetakoa (entzuleengandik boturik gehien jasotzen duen maketarentzat. Sarituta taldeek azken kontzertu batean eskuhartuko dute.

□AEK EGUNERAKO AUTOBUSAK

Goierriko Goiztiri AEKk urriaren 16an Tafallan ospatuko den AEK egunerako Autobusak antolatu ditu. Joan ahal izateko tikeak aurrez hartu behar dira. Zehaztasun gehiagorako dei 889174 telefonora.

□YOGA IKASTARROAK ORDIZIAN


Aurreko kurtsoetan bezala, aurren ere Yoga klaseak ematen hasi dira urriak 4ean Ordiziako Barrena Kultur Etxean. Aktibitateak, klaseen nondik-norakoa, ordutegiak, e.a. eratuta daude. Informazio gehiago nahi duenak dei dezake 889770 telefonora.

□BERTSOPAPER LEHIAKETA “ORIXE”REN OME-NEZ

Orexako Udalak, Euskara Batzordea bitarteko, “Orixe” handiaren omeneko VII. bertsopaper lehiaketa antolatu du. Hiru adin-taldeetan banatu da, hurrengo sariekin: 14 urte bitartekoentzat (25.000 pzta.), 15etik 20 bitartekoentzat (50.000 pzta.) eta 21etik aurrekoentzat (75.000 pzta.). Gutxienez 8 bertso eta gehienez 12 bidali beharko dira. Gazteenek gutxienez 5 bertso. Gaia libre da eta epea urriaren 16an bukatuko da. Informazioa eta helbidea: 682035 telefonoa; Orexa Udal (Orixe Bertsopaper lehiaketa) 20.490 Orexa, Gipuzkoa.

□GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARREN ESKE GOIERRITARRA

Goierriko edozein herritako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAk, argitara emateko. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker! GOIERRITARRAren zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, “Correos” eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 889612.



Ramón Jáuregui

HERRI BAT GUZTIONTZAT

PSE

EUSKADIKO EZKERRA



PSOE

HEGOA TABERNA

Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA

GOIERRITARRA

3.700 ale
12.000 irakurle



Goierriko gose grebalariek

**“zigorraren
3/4ak beteak
dituztenez 77
euskal presoak
kalean behar
lukete”**

Idatzi honen bitartez, Euskal Herriko auzo eta herri guztietan azkenaldian preso-en alde gose greban egon garenok, gose greba eta borrokaren amaiera jakinarazi nahi dizkizugu. Gose greba amaitu dugu, baina hala ere, euskal preso politikoen eskubideak eta duintasuna bortxatuak diren bitartean, borrokan jarraituko dugunaren gure konpromezua adierazi nahi dugu. Hain zuzen, presoek legediaren arabera dagozkien eskubideak errespetatuak ez zaizkien bitartean, atsedetik gabe borrokan jarraituko dugula adierazi nahi dugu. Hauek dira, nagusiki, bortxatuak zaizkien eskubideak:

Presoen alde Goierriin ere

● Legedi penitentiarioaren arabera, bueltaezin eta sendaezinezko gaixotasuna duten euskal presoak 60. artikularen babesean aske egon behar lukete; beraz, beren baldintza gabeko kaleratzea exigitzen dugu.

● Kondizionalaren babesean eta ; beraz, beren baldintza gabeko kaleratzea eskatzen dugu.

● Preso orok bere zigorra bere jaioteritik ahalik eta hurbilen bete behar duela dio legedi penitentiarioak “bere sustraigabetze soziala eman ez dadin”; euskal presoek kasuan, errealitatea guztiz alderantzizkoa da; euskal presoak estatu espainoleko makina bat espetxetan daude sakabanatuak beren herriarekiko lotura eta komunikazioa hautsi nahi dutelarik. Gainera, dispersioak presoek zigor gaineratua suposatzeaz gain,

senitartekoei ere hamaika arazo sortzen dizkie: bisitak egiteko milaka kilometro egin beharra; bidean ordu mordo bat sartuaz eta honek suposatzen duen istripu arrisku eta diru galera haundiekin, etabar luze bat. Hor-taz, euskal presoek berehalako eta baldintza gabeko birbatutzea exigitzen dugu Euskal Herriko zenbait espetxetan.

Dakusazuenez, estatu espainolak bere hiritarren eskubideak eta konkretuki presoek eskubideak ez defendatzeaz gain, egunero bortxatu egiten ditu eta are gehiago bere legedia ere ez du betetzen. Ondorioz, estatu espainolean demokrazian gaudela eta espainol estatua zuzenbidezko estatua dela esatea aberrazio hutsa dela esan dezakegu, demokrazia deritzon estatu orok eta bere administrazioak giza eskubide eta bere hiritarren eskubideak errespetatuak izan daitezen lan egin behar baitu.

Elkartasuna, askatasuna, presoekin izan eta lortu herriarena.



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



Gero jator eta atsegina

BASAKANA

**ITURRIOZ 11
BEASAIN**



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 **BEASAIN**

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

**Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak**

**Euskalerrria Kalea
Industrialdea**

☎ **88 04 15 ORDIZIA**
☎ **16 07 07 OLABERRIA**

Autoeskolak, autoentzat eskolak?

Ikasturtearen haserako kanpaiak batzuentzat jo du eta besteek hurbil dute nagiak ateratzen hasteko "gong" amorragarria. Urtero gertatu ohi den bezala hainbat inkesta, portzentaia, e.a. izan dugu komunikabideetan. Hauek diotenez, "D" ereduak gora egin du aurren ere. Baina badaude eguneroko bizitzan oso gauza sinpleak, guztiz aldatu beharrekoak, goiko datuek dagokien erantzuna jaso dezaten: autoa gidatzeko baimenaren azterketarena, adibidez!

Goierriko autoeskoletan (eta besteetan ere hala izango da seguru asko), ikasleak dena erdera hutsean ikastera beharturik daude, 18 urterarte ikasketak euskeraz egin ondoren. Esan didatenez, test guztiak erderaz daude eta azterketa euskeraz egin nahi duenak Donostiara joan behar du. Baina testak erderaz egin eta gero azterketa euskeraz egitea... Gainera monitoreak ere, askotan, erderaz bakarrik daki.

Hauek ere eskola direnez, ez al dute besteen martxa jarraitu behar? Ikasleek testak itzultzen eta ulertzen zergatik pasa behar dute ikasten baino denbora gehiago? Denbora hori ere ordaindu egiten dutela, bale baino... Zeinen egitekoa da 5 minututan plantilaz zuzentzen diren testak eta azterketa euskeratzea? "Euskal Gidabaimen" egunak antolatzen hasi behar ote dugu ala manifestaldiak egiten hauteskunde bezperetan?

Garbi dago: autoei kasu gehiago egiten zaie hemen gidariei baino.

 **Iñaki Murua**

Ordu aldaketa nola ikusten duzu?



Julian Munduate
ataundarra, 81 urte
erretiratua

Jubilatu aurretik gehiago nabari nuen ordu aldaketa, goizean jeikitzerakoan ordubate lehenago jeikitzen ginela zirudien. Hortara ere jarri egiten den arren, nik nahiago dut neguko ordutegia.



Beni Goikoetxea
ataundarra, 31 urte
ileapaintzailea

Udakoa nahiago dut, arratsaldeko seietan iluntzea ez zait batere gustatzen, motza gelditzen da eguna. Ordu aldaketa onerako dela esaten dute baina nik ez diot bentajarik bilatzen.



Joseba Goikoetxea
ataundarra, 27 urte
langabetua

Ordua aldatzeak ez dit afektatzen, baina udakoa nahiago dut, tristura gehiago ematen du lehenago iluntzeak, uda kutsua galtzen da. Ez ditut ulertzen ordu aldaketaren abantailak eta ez dut beharrezkoa ikusten.

Bitxikeriak

Zaldibiako Iztueta Fundazioak (zeraindar jatorria zuen) Goya pintorearen 6 koadro ezagutzera eman nahi ditu. Koadro horiek "Maragatoa", garai bateko bandido famatua zuten gaitzat, Zaldibiko Urtesabelen 1777an jaiotako Pedro Argia fraide frantziskotarrak atxilotu zuena, hain zuzen ere. Benetako pinturak Txikagoko Art Institutean daude eta orain dela gutxi ezkerreko kopiak Zaldibiaratzeko zoria izan dute Fundaziokoek. Fes-tetan ikusi ahal izango dira. Iztuetak, bere "Guipuzcoaco Condairan" Pedro Argaiaren balorea eta ausardia aipatzen zituen gertakizun hura zela eta. "Mundua mundu dan arte" gogoratuko zela zioen. Dirudienez, bandidoaren urkatzearen lekuko izan zen Goya; erregeak sari bikain bat eman zion, berriz, zaldibitar fraideari.



**IKAN
AKADEMIA**


94/95 INFORMATIKA
IKASTAROA

Nafarroa Etorbidea, 1 (Etxe-Ubi)
BEASAIN



☎ 88 97 48

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN

KUKO
Jatetxea

—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

GEMA
OINETAKOAK
Nafarroa Etorbidea, 7

ALTZAGARATE
JATETXEA

■ Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaia, e.a. ospatzeko

Beasain auzoan

Ba al dakizu...?

JUAN MARI JAUREGI

legorretarra izendatu dute Gipuzkoako gobernadore zibiltzat, aurreratu genizuen bezala. Politikaz aparte, Legorretako Bilkoin elkarteak lehendakari ere izan da orain arte eta bertan, 150 lagunentzat afari bat prestatzen ari zela, sorpresa eta harridura artean eman zuen izendapenaren berri. Buruzagi berriak Gobernu Zibilararen irudia desdramatizatu nahi du eta gehien beldurtzen duena postuaren bakar-dadea da. "Ezin egona jendearekin kalean. Eta noski, kontrolatu egin beharko naizela, oso irekia bainaiz. Baina ezin nion uko egin ardurari".

IRUZURRA, IRUZURRAREN GAINEAN,

horixe ere badabil alde hauetatik. Orain asko ez dela esan izan dugu nola zebilen jendea baserritarrei gauzak atera nahian. Orain berriz, 500 pezetako txanponak faltsifikatzeagatik talde bat detenitu dute, baina aurretik Goierriko tabernatan makina bat txanpon faltsu sartu dituzte. "Sariak tokatu zaizkigula" edota "li-

buruak erosi ditugula" eta kontu korrontetik dirua kentzeko, engainatzeko mila modu ere aurkitzen ditu horretarako dagoenak. Adi!



BEASAINGO IKASTOLAN

ikasturtea hasi da, irakasleek eta publikoaren aldekoek ikasturte hasiera atzeratzea erabaki ondoren. Arazoak bere horretan jarraitzen badu ere, lehenengo baldintza, ikasturtea hastea, bete da. Hemendik aurrera, elkarriketek izango dute tarte, behin-betikoz, hainbeste burukomin sortu duen arazoa konpontzeko asmotan.

GOIERRIRAKO TELEBISTA

bat sortzeko asmotan dabilta aspalditxotik 3 goierritar: Xabier Parra eta Jon Izagirre lazkaotarrak eta Xabier

Otegi ordiziarra, Andoain-go Zine eta Bideo Eskolatik paseak hirurak ere. Bailarako egitasmo estrategikoan aurikusten dira honelako proiektuak eta orain udal-txeen ezinbesteko laguntzen bila dabilta. Beasain-goak eta "Goieki" k eskeintza bana egin zien, baina azken erantzunik ez dute. Goierriko Telebistak Arrasatekoa du eredu, euskara hutsean izango litzateke, beren ekipoa jarriko lukete haseran eta publizitate eta dirulaguntzekin finantzia-

tuko litzateke. Azken proposamena Ordiziako Institututik jaso dute, lokala eskeini zaie eta Udalarekin eta Hezkuntzarekin harremanetan jarri dira bai telebista eta bai bideo-tailer bat eratze-kotan. Aipatu bideo-lan dextente eginak dituztela 3 lagunok: Kilometroak 93, Lazkaoko Ikastolaren 30. urtebetetzea, Lazkaoko txondorra, bideo-klipak... Badirudi serio ari direla jartzen gauzak, orain arte desanimaturik bazebiltzan ere.

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83



MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00



ABIADURA HANDIKO

TRENAren aurkako asanblada ekin-
tzak burutuz dabil. Alegiatik Bedaio-
rainoko mendi-ibilaldi informatibo
batean 100 lagun bildu zituen, Gipuz-
koa eta Nafarroako mugetan AHTak
sortuko lituzkeen ondorio ekologikoak
ezagutzeko. Nafar Gobernuaren ingu-
rugi azterketa batean inpaktu kritiko
eta larri ugari onartzen omen da. Ara-
larreko mendi zerra arriskuan omen
legoke, egin beharreko tunelak oso lu-
zeak izango baitira. "Parke Natural
izendatu eta bere erditik autobia edo
AHTa pasa daitekeela" salatzen dute.
Alegia, Altzo eta Ikaztegiako herriek
eraso ikaragarria jasango luketeela

honen haserarte martxan egon zen
Goierriko beste zenbait herrietan ere.
Udalek beste 3 urtetan aurrera egin de-
zan nahi dute, bere eskaintza zabalduz
ikastetxeetan, e.a. Geroztik, eginkizun
hori Hezkuntzari dagokiola adierazi
omen dio Beasaingo Udalak Ordizia-
koari. Gauzak ez daude argi eta zai egon
behar; kontutan hartu bi enpresek be-
reganatu nahi dutela zerbitzua gainera.

LEONARDO ESNAOLA

lazkaotar misiolaria Ruandarako la-
guntzak biltzen ibili da, han eta hemen
atea joka Goierriko zenbait herrietan.
Irailaren azken aldera abiatu zen hara,
hemen laguntzak eskertu ondoren.

diote. Goierri-
ko herrietaz ez
digute ezer
esaten.

ZE- RRAILA

(sexu informa-
zio eta orienta-
bide zerbitzua)
90.ean ireki
zen Ataun, Al-
tzaga, Beasain,
Itsasondo,
Lazkao, Ola-
berria, Ordizia
eta Zaldibiako
udalen lagun-
tzarekin. Urte

HELDUENTZAKO ES-


KOLAK. GOIERRITARRAK ere
eman du beren berri eta puri-purian
daudela ohartuko zineten ikasturte be-
rri honetan. Beasain eta Ordizikoez
gain, Lazkao, Idiazabal, Legorretan eta
Zegaman ere ireki dira. Ikasle eta ira-
kasle kopurua igo egingo dela espero
da. Bentaja bat bai behintzat: hemen
bertan emango direla eskol-gradua-
tuaren tituluak.



AZKEN ORDUKO BE-

RRIA: Rafa Aldasoro ordiziar magoa
hil da trenak harrapatuta. Ezkio-Itsa-
soko gure korrespontsala den Pilare
Mujikaren aita, Fidel, ere hil da. Gure
doluminak familiartekoei.

**Euskal
Herria
abertzale eta
ezkertiarra**



HERRI BATASUNA

Goierriko eliza eta ermittak (II)

Bailaran goraltzen diren santuen zerrenda luzea da. Baten batzuk leku ugaritan gurtzen dira, beste batzuk ez bezala. Hona hemen Goierriko baseliz eta elizen zerrenda, beren jatorri garaia agertzen dutela, zaharrenetik azkenengoetaraino. Begiratze hutsak alderdi bitxigarri eta errespetuzko ugari agertzen ditu.

Abaltzisketa:

S. Juan B.ren parrokia (1384). Baselizak: Larraitzeko Erremediotako Andre Mari (1669); Txutxurremendi-ko Santi Kutz (1683).

Altzaga:

S. Migel parrokia (1508), Altzaar-teko Andra Mari (1540) eta Altzaga-ratekoa (1549).

Arama:

S. Martin parrokia (1350)

Ataun:

S. Gregorio Handiaren parrokia (1535), S. Martin Gotzaiarena (1361) eta Aiako Bisitazioko Andre Marirena (1797). Baselizak: Kalbario santua (1619-20), Erremediotako Andre Mari ("Iturrisantu", 1604), S. Sebastian (1535) eta Santiagoren Ospitalene etxea (1536).

Beasain:


Abutzuko Andre Mari parrokia (1483). Baselizak: Belengo Andre Mari (1862, kulturik gabekoa gaur), Loinazko Andre Mari (1566), S. Andres (1567), S. Juan B. (1704), Loinazko S. Martin (1691), Igartzako ospitaletxea (1558) eta CAFeko Kristo santua (1666). Arriaran: Salvatore monastegia (1300), S. Pedro parrokia (1560) eta Sta. Engrazia baseliza (1625). Astigarreta: S. Martin parrokia (1582) eta S. Gregorio baseliza (1802). Garin: S. Sebastian (1569).

Gaintza:

S. Migel (1409) eta S. Martin parrokiak (1568).

Idiazabal:

S. Migel parrokia (1491). Baselizak:



Kalbario santua (1769), Gurutzeko edo Jasokundeko Andre Mari (1614), Andre Mariren Ikustaldia edo Sta. Isabel saindua (1769), S. Andres Apostolua (1769), S. Esteban (1769), Oriako S. Inazio (1737) eta Sta. Apolonia (1769). Ursuaran: Sta. Engraziaren parrokia (1869).

Ezkio-Itsaso:

S. Bartolome parrokia (1419), Sta. Maria Madalena baseliza (1625), Kizkitzako Andre Mari (1622 edo), Iraitheko Andre Mari eta S. Lorentzo (1769).

Itsasondo:

Abutzuko Andre Mariren parrokia (1350). Baselizak: Urkiako Santi Kutz, S. Gregorio (1625) eta Letrango S. Juan (1554); bertako ospitaletxea (1550-82koa).

Lazkao:

S. Migel parrokia (1403). Baselizak: S. Juan "anteportalatiña" (1863), S. Juan ebanjelaria (1625), S. Juan txiki (1863), S. Prudentzio (1479). Komentuak: Sta. Teresa, Karmeldar oinutsak lehen, gaur Beneditarren (1641). Sta. Ana, Zistertar lekaimeak (1641).

Legorreta:

Salvatore parrokia (1350). Baselizak: Guadalupeko Andre Mari (1625), S. Migel (1625), Sta. Ana (1582) eta Sta. Marina (1802).

Mutiloa:

S. Migel parrokia (1501) eta Lierriako Andre Mariren baseliza (1578).

Olaberria:

S. Juan B.ren parrokia (1501), Agirreko Santi Kutz (1562) eta Lutzi santua (1562, gaur hilerrian) baselizak.

Ordizia:

S. Bartolome parrokia (1399, gaur egun baseliza) eta Sta. Maria (1511). Baselizak: S. Andres (1524) eta S. Pedro (1747). Gurutze-gorriagako gurutzotokia (1722?).

Ormaiztegi:

S. Andres parrokia (1350). Baselizak: Karmengo Ama (1898, hilerrian) eta Fauste santua (1533, Mikel edo Sebastian santua egun).

Segura:

Sta. Engraziaren parrokia (1562, gaur baseliza) eta Abutzuko Andre Marirena (1384). Baselizak: Santi Kutz (1802), Estenagako Andre Mari (1618), Karmengo Ama (1863, hilerrian), S. Migel (1561), S. Andres (1236), Sta. Barbara (1625), S. Juan B. (1680), Maria Madalena (1551), S. Sebastian (1589), S. Bizente (gaur base-ria) eta bi gurutzotoki. Sortzez garbiaren komentua (frantziskotarrak, 1618).

Zaldibia:

Txanpaingo Santa Fe parrokia (1134). Baselizak: Andre Mariren Jasokundea (?) eta Saturdi (1575).

Zegama:

S. Martin parrokia (1409). Baselizak: Aizkorriko Santi Kutz (1760), Olaberriakoa (1862), Santi Izpiritu (1546), Elurtzagako Andre Mari (1430), Gesalbizkakoa edo Iruetxetakoa (1638), S. Adrian (Sanardi, 1027), Sta. Ageda (1802, bere irudia Olaberriako Santi Kutzen), Sta. Barbara (1678), S. Bartolome (1613, gaur hilerri) eta S. Pedro (1614). Aranburuko S. Nikolas ospitaletxea (1635).

Zerain:

Basarteko Andre Mari parrokia (1350, Abutzukoa) eta S. Blas baseliza (1863).

Ordiziako Artziprestaldearen liburuxkatik (1988)

BEHI BAT PERRATUKO DA JAIETAN, GAZTEEK IKUSI-IKASI DEZATEN

Errementari/perratzailatzatik informatika/imaginaren arora

Orain dela urte batzuk monumentu historikotzat hartu zuen Perratokia Udalak, eta hortxe dago, txukundu eta itxuratu ederra hartu dituelarik. Gaur museoko pieza da ia-ia atzo goizera arte guztiz funtzionala zen perratokia. Begira zeinen azkar pasa garen farol-argi eta gurdiaekin ibiltzetik informatika eta imaginaren arora. Halabeharrez, lotura erabat hauts ez dadin eta belaunaldi berriek garai haiez zer bait gehiago ikasi eta jakin dezaten, behi bat perratuko da Santafetan.

Zientzi eta teknikarekin batera, historiak aurrera egin ohi du, behiala guztiz funtzional eta egunerokoak ziren ofizioak poesiarako utziz eta tresnak museotako pieza preziatu bihurtuz. Horixe gertatu zaie Zaldibiko errementeria eta perratokiarri. Izan ere historiak, izango bada, zer bait irentsiz elikatu edo mantendu behar du bere burua.

Goiko Errementaria eta Behekoa

Errementaritzak, perratzailatzak bezalaxe, historia luzea bezain zabala du Euskal Herrian; Zaldibia ezin izan salbuespen. Sarri askotan, gainera, elkarren eskutik ibili dira bi ofizioak, esan nahi baita, errementari gehienak perratzailak ere bazirela. Zaldibiko kasuan, batean betetzen zen baldintza hori, baina bestean ez. Beraz, bi errementeria eta perratoki bakarra ezagutu ditugu: Goiko Errementeria eta Beheko Errementeria.

Nonbaitetik hasi behar eta, lehenik eta behin Goiko Errementeriarren aipamen laburra egingo dugu. Datu eta



xehetasun asko aspaldiko garai hartan galtzen badira ere, badakigu hasiera nork eman zion: Gaintzako Zabale baserriko Joxe Antonio Etxeberriak. Ondoren, honen suhiak, Erramun Arresek, hartu zuen testigua; eta tailer honetako azken errementaria Mikel Arrese, Erramunen semea, izan da.

Arrese: "Sutegiak motorrik ez eta eskuz eragiten genioan suari"

Estrainatik, Beasaingo C.A.F.en lan egin ondoren geratzen zitzaizkion ordu libreetan, aitari laguntzen hasi zen. Baina 1950. urtean fabrika utzi eta arrain saltzeari ekin zion. Hori goizez egiten zuenez, arratsaldeetan errementaritzan jarduten zuen. 60. urte aldera arte segitu zuen Mikelek, ezkondu eta Ordizian bizitzen jarri zen arte, hain zuzen. "Baserriko tresna guztiak konpondu, zorroztu eta kaldeatzen netian:

dela sega, aizkora, ahioztz, are-hortz, ingude, igitai, kateak... Eta hori dena fragua-sutegian egiten nian; fragua hark motorrik ez zian eta suari eskuz eragiten genioan", esan digu Mikelek. Kaldeatzea zer den ere esplikatu digu: soldeatu ordeztutan berotu eta bi pieza elkarri jostea.

Beheko Errementerian, lehen esan bezala, perratokia eta errementeria, biak, ziren. Aurreko mendetik omen dator errementeria horren historia. Jose Anjel Imazek, gaurko Imaz Manzizidor familiaren aitona, izan behar zuen errementari; baina honek tratataritarako bokazio gehiago, nonbait, eta utzi egin omen zion lanbide horri. Santa Marinako Fermin Galarragak bete omen zuen hark utzitako hutsunea, 1905tik aurrera. Baserriko edozein erraminta zorroztu eta konpontzeaz gain, erraminta berriak egin ere egiten zituen. Aurrenetik ermentaritzan bakarrik ari izan bazen ere, geroago ganadua perratzten hasi zen. Ferminen seme Inaziori irakatsi zion ofizioa eta honek ogibide horixe izan zuen 1954ra arte. Urte horretan Beasaingo C.A.F.en hasi zen eta handik aurrera bi lanak konbinatuz jarraitu zuen denbora zentean. Nahiz eta azkenerako lana asko jaitsi zen, 1980 aldera arte eutsi zion Inaziok ofizio zaharrari.

Bukatzeko, eta bide batez, ordenagailuaren fraguan kaldeaturiko letra apur hauek izan bitez Mikel eta Inazioren omenez.

 Rufino Iraola

GARMENDIA
ELEKTRAGAILUAK

Leku Eder Kalea
ZALDIBIA

☎ 881350

BETI GAZTE
elkartea

Mondeju, pintxo eta ogitar-tekoetan berezitasuna

Plaza Nagusia

ZALDIBIA

NAZABAL
taberna

Lurdes-enea
ZALDIBIA

☎ 88 71 46

ALKATEAREN AGURRA

Agur, herritarrok:

Berriro ere Santa Fe jaien atarian aurkitzen gara, Legealdiaren hondarrean oraingoan. Esan ohi den eran, urte osoko lan eta kezka alboratu izirik, gozatu eta disfrutatzeko egunak datozkigu. Lan asko egin onderengo saritzat ere hartu behar dira festak, eta, batez ere, lanean gogor jarraitzeko indar berriz janzteko bide izan behar dute. Guk ditugunak ematen segitzeko asmoa dugu.

Jakineko gaude, gure ahalbide ekonomikoen arabera, Festa Batzordea ahalik eta festarik on eta bikainenak antolatzen saiatu dela, denen gustua egitea oso zaila bada ere. Eskerrik beroenak programaren osaketan lagundu duzuen guztioi.

Bestalde, beti bezala, izango da Santa Fe jaiak gure artean igarotzeko modurik ez duenik, betiko agur egin digulako edota beste zernahi arrazoiengatik; halakoentzat ere gure oroimenik beroena gordetzen dugu.

Azkenik, herritar nahiz kanpotik etorriko zareten guztioi tradizio eta usadio handiko festa eder hauek ondo pasa ditzazuen opa dizuegu. Bakean pasa ditzagula eta, lehenago esan dugun eran, kurtso edota lanaldi berriari ekiteko indarberritu gaitzatala.

Migel Maria Irastorza



Urriak 6 osteguna (Santafe eguna)

Goizean goizetik Iturengo joleak. **10,30:** Txalaparta txaranga giroa alaitzen. **11,00:** Meza Nagusia Parrokiko Koruak lagunduta. **Ondoren:** Alkate Jaunaren aureskua, Iztueta Dantza Taldearen laguntzaz. Kultur Etxean "Mundutarrak" erakusketa zabalduko da; bertan izango da panpiñen egilea. Hilak 12ra arte zabalik. **18,00:** Frontoi itxian Pelota Eskolak antolatutako pelota partido bikainak. 1. partidua haurrena: Belauntzaran-Aranburu, Huarte-Iraetaren aurka. 2. partidua afizionatu mailakoa: Segurako Artola-Imaz, Amezketako Artola-Galartzaren aurka. **19,30:** Plazan afaldu aurretik dantzari egiteko aukera Errekalde Anaiekin. **23,00:** Maixa eta Itziarren trikiti-xarekin dantza saioa.

Urriak 7 ostirala (Santafe bigarrena, Umeen eguna)

Goiz esnatzeko, trikitilari nekazariak. **11,00:** Meza. **11,45:** Xexenak, potokak eta ahari talka: Arotxaeneako Manuelen aharia kanpoko ahari baten aurka. **14,00:** Umeen bazkaria herriko plazan. Ondoren haur-joku-jolasak. **15,30:** Herri kirolak: Peñagarikano-Mugertza gipuzkoarrak Barberena-Etxeberria nafarren kontra. **22,00:** Pelota partidua: gazteak 1. partiduan: Soraluzeko Garzia-Sukiaren aurka, Leitzako Jauregi-Barriola. Afizionatuak 2. partiduan: Berrobiko Mendizabal-Mendiolauren aurka, Amezketako Haritz eta Leitzako Iparragirre. **23,30:** Basakabi musika taldearekin dantzaldia.

MILA ARRAINDEGIA

Zaldibitarrek zori onduz
Sta. Fe festa hauetan

☎ 88 90 84
Sta. Fe Kalea

ZALDIBIA

ILLATI

TABERNA

Festa onak pasa!

Santa Fe ☎ 88 31 05 ZALDIBIA

PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA

Tfnoa: 88 28 68



ETXABE AUTOBUSAK

Bidaia ezazu litera erosoetan
edo 60 ohizko eserlekuetan

☎ 88 41 05

Mugikorra: (908) 676282 ZALDIBIA

Urriak 8 larunbata (Kuadrila eguna)

Goizetik tramankulu harrigarriak. **Eguerdian:** Kuadrila guztiak bildu eta kalejira txarangarekin. **14,00:** Kuadrilen bazkaria herriko plazan. Ondoren kuadrila arteko joku-jolasak arratsalde osoan. **24,00:** Drindots musika taldearen dantzaldia. **02,00:** "Play Back" lehiaketa (1. saria: kontzertu baterako sarrerak). **03,00:** Drindots berriro. **Ondoren:** Zezen mekanikoa plazan, txokolate-jana eta dantza txapelketa: musika klase guztietara. (Oharra: Lepoko pañueloak Beti Gazte tabernan daude salgai).



Urriak 9 igandea


Goizean Kepa eta Xabier trikitalariek esnatuko dituzte kale bazterrak. **11,00:** Meza Nagusia. **12,00:** Perratokian behi bat perratuko dute, galtzeaz dagoen ofizioaren lekuko. **Ondoren:** Goenatxo IIa harrijasotzaileak 3 harri altxatuko ditu: 200 k., 163 k. eta 100 kiloko borobila. **Segidan:** Gaztetxoentzako xexen eta pottokak. **18,00:** II Iztueta Aurreku Gipuzkoarraren Txapelketa frontoian, Gipuzkoako Kutzak babestua. **23,00:** Akelarre musika taldearen emanaldia.

Urriak 11 asteartea (Mozorro gaua)

22,00: Pelota Eskolak antolatutako partidua, herri arteko norgehiagoka: Zaldibia / Huarte Arakil (Nafarroako txapeldun). **23,30:** Mozorro edo disfrazen gaua Joselu Anaiak musika taldeak alaituko du.

Urriak 12 asteazkena

19,00: Mondejuari lur-ematea. Hurrengo urte arte!



JOXEPANE

HERRI OSTATUA

★ Taberna
★ Jatetxea

Albisu Etxea ZALDIBIA

Zaldibia eta Norteko Ferrokarra

Bada deboraldi bat dokumentu aski interesgarriekin topo egin nuela. 1858ko eskritura bat da; zehatzago esateko, Ataungo Don Miguel Dorronsoro iskribau jaunaren aurrean egindako eskritura da. Txirritak geroago hain bertso famatuak jarriko zizkion Norteko Ferrokarra eraikitze-ko Zaldibiko Udalak 40.000 erreal eman behar zituen. Udalak herriko bizilagunei eskatu zien dirua eta hauek hipotekan utzi zioten diru hori Udalari. Hain zuzen, hipoteka horren tratua zerratzeko egindako eskritura da. 175 prestamisten izen eta abizenak azaltzen dira.

Bai, xehetasunez beteriko dokumentua dela esan behar. Garai hartan Franzisko Inazio Sasian zegoen alkate. Eskritura hau lehenengo 8.000 errealak bildu behar zituztenekoa da, baina, bertan esaten denez, gaineratikoak 10 urteren buruan eman beharko zituzten. Kantitate hori erraz gainditu zuten zaldibitarrek, lehenengo emanaldi horretan 10.860 errealek iritsi zirelarik. Martin Antonio Eizagirre zen diruzaina. Zaldibiko herriak diruak Diputazioan entregatu behar zituen eta hark "Credito Mobiliario" izeneko enpresaren eskura ipini; % 6a zen diruaren korritua; Udalak urte edo zilarrezko txanpon finetan ordaindu behar zien prestamistei; eta, azkenik, Zaldibiko herri terrenoak, garantia modura, prestatzailen alde hipotekaturik geratzen dira.

Badirudi, gainera, diru-jartzaile bakoitzak herri terrenoaren zein zati eskura zezakeen ere erabakirik utzi zutela. Terreno zati horri Zaldibian "suerte" esaten zitzaion eta Abaltzizketan, "zotza". Zaldibiko Udalak bi agrimentsore izendatzen ditu herri terrenoak markatu eta banatzeko. Lau partetan banatzen



"Tratua zerratzeko eskrituran 175 izen-abizen azaltzen dira"

dituzte, parte bakoitzak beste lau "suerte" izango dituelarik. Guk uste dugunez, suerte honen barruan izango zuen bere zatia prestamista bakoitzak. Guk geuk ezagutu ditugu mendian "suerte" zuten baserritarrek eta bertako egurra, garoa, e.a. beraiek gozatzen zutenak.

Partiketa hau dela medio, toponimiko asko azaltzen da eskrituran. Lehenengo partea: Mitxelaga, Olariaga, Ataungo Saroia, Aretxabalekarrak eta Matxingorrek osatzen zuten. Bigarrena: Ausondo, Ausoegi, Gaintzola, Luisa Saroia, Urriztiederra eta Lapasorok. Hirugarrena: Errentxonta, Ezkiagakotxuloa eta Ezkiak. Laugarrena: Bideberrietak. Gero, parte hauek suertetan banatzerakoan edo, ateratzen dira beste toponimiko batzuk ere: Urtxikiakoa, Arzabalzazearrea, Gaztanbide, Arrategorriangoaitza, Ilardi edo Ilardi eta Arransoro. Dena dela, banaketaren haria nondik nora dabilen antza ematen beti ez da erraza. Horrela, badago beste partiketa klase bat ere "por lotes" deritzona, nahiz eta oraingoan toponimiko berririk agertzen ez den. Puntu nahasi hauek gorabehera, toponimikoak eta

banaketaren helburu nagusiak argi daudela uste dugu.

Orain esan dugunaz aparte, dokumentu horri esker, baserrien gainean ere zerbait esan liteke. Konparazio baterako, guk zutik ezagutu ez ditugun baserri-izenak ere badatoz: Bartzelona, Añegi... Izenak, bestalde, guk esan ohi ditugun baino osoago agertzen dira: "Olea", "Floreaga"; eta ez, inolaz ere, "Ola", "Probea", etab. Era berean, gaur guk "goiko" esaten dugun leku guztietan "garako" agertzen da. Hala nola: Nazabalgarakoa, Arruabarrengarakoa, Ernaitzagarakoa...

Beste datu bat zera da: sasoi hartan ziren apeiliduak aldendu egin dira zenbait etxetatik. Esate baterako, Igar-tzaetan "Sarriegi" azaltzen da, eta gaur egun ez dago Zaldibia osoan bakarria behar izanda ere! Era berean, Urtsularren Aldasoro ageri da: Mamunean, Mendizabal; Aierdin, Iruin, Zaldibarrean: bizitza batean, Arruabarrena, eta bestean, Lizarralde; Iturritzan, Berasategi; Nazabalgarakoan, Arrese; Bidasolan, Agirre; Galbariotan, Urretabizkaia; Urretagoenean, Etxeberria, etab. Aurreko horien orde, honako hauek daude gaur egun baserri horietan: Urtsularren, Aierbe; Mamunean, Irastorza; Aierdin, Irastorza; Zaldibarrean: bizitza batean, Irastorza, eta bestean, Garmendia. Iturritzan, Mendizabal; Nazabalgarakoan, Etxabe; Bidasolan, Izueta; Galbariotan, Beloki; Urretagoenean, Sukia.

Dirudienaz, Udalak txintxo itzuli zizkien diruak bizilagunei, guk ez dugu entzun, behintzat, herri terrenoen jabe inor egin zenik.

 **Rufino Iraola**

ARRESE arraindegia



☎ 16 08

Etxekoa: 88 70 34

Olano Etxea, 20
ZALDIBIA

txaro

GARBIGAIENDA - USAINDEGIA
OPARIAK - ESKOLAKO MATERIALA

AZTIA - BERRI, 1
ZALDIBIA

☎ 16 08 76

Muguet

Bulego, kafetegi eta hilda-koentzako zentroak

Emaztegaiantzako loreak
Geltokiko Kioskoa

☎ 88 98 83

ORDIZIA

Ordiziako denda eta abarretan euskara indartzeko asmoa

Era guztietako establezimendu komertzialetan (denda, taberna, banketxe, inmobiliariak, e.a.) euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko asmoz, plangintza bat jarri dute martxan Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait herrieta-ko udalek. Horien artean Ordiziakoa dago; kanpainaren lehen fasea urriaren 8an bukatuko da; bigarrena urriaren 24tik azaroak 11 bitarte.

Plangintza "Siadeco" sozio-ekonomi ikerketa elkarteak tajutu du. Gauzatu, udalerrietako euskara zerbitzuetako arduradunekin batera lan eginez gauzatuko da. Helburu nagusienak honakoak dira: giza-bizitzan horren garrantzitsuak diren establezimenduotan euskararen presentzia haunditzea (ahoz nahiz idatziz), enplegatuen euskara maila hobetzea eta barne nahiz kanpo-harremanak euskaraz izango dituen establezimendu sare bat sortzea.

Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna dugun Olatz Aranzabalek esan digunez, "lehen-dabiziko helburu zera litzateke: kontaktuan jartzea establezimendu horietako nagusi eta langileekin. Jakin eskuartearen zer daukagun (zein



Euskara Zerbitzuko Olatz Aranzabal.

adin duten, euskaldunzaharrak ala berriak diren...), hemendik aurrera zerbait egiten hasteko. Erraza ematen du, baina ikusi egin behar zer moduz ateratzen den, ea zer harrera egiten dioten".

Momentuz, "Ordizian" dendarien elkarteak ere bere babesa eta laguntza eskaini omen dio egitasmoari eta eskutitz bana bidaliko die elkarteko kide guztiei kanpainan parte har dezaten eskatuz. Udaleko ordezkari ba-

tek denda eta beste guztiak bisitatuko ditu eta berauetako hizkuntz egoerari buruzko datuak jasoko ditu. "Datuak ordenagailuan sartuko dira gero eta hauteskunderen eta eguberrien artean jakingo dira emaitzak".

"Erraza ematen du, baina ikusi egin behar nola ateratzen den"

Hortik aurrera, zorte piska batekin, hitzarmenak sina litezke. "Kasu batzuetan nahikoa izango da agiriko errotulazioa euskaratzea; beste batzuetan, enplegatuen euskalduntze/alfabetatzea; inprimakien euskaratzea ere bai. Bestela, ezkorrak balira emaitzak, aurreragoko utzi beharko dira asmoak". Iaz ere honelamoduzko beste kanpaina bat egin zen Beasainen. Beste zenbait lekutan egin izan da eta oso emaitza desberdinak atera dira. Ordiziari dagokionean, animosa agertu zaigu, halere, Olatz Aranzabal.


 Mikel Aramendi

GANBO, S.A.



ANDERE
lenceria

☎ 88 35 12 - 16 Elbarrena Auzoa, 2
Faxa: 88 35 12 ZALDIBIA



construcciones
SUQUIA, S.A.

☎ 88 58 00 - 04 Faxa: 88 88 50 Txindokipe etxea ZALDIBIA



LOGOS



TXINDOKI

Sukalde eta bainuko altzariak

J. M. Iturrioz, z/g (Matadero parean)

☎ 88 03 98

BEASAIN

MARIA ROSARIO URRETABIZKAIA EHIZTARIAREKIN BERRIKETAN:

“Hemen bizio bat sartu da: hegan egiten duen edozerri tiro!”

Usoak badatozela eta, inguruko ehiztariak erne jarriak dira dagoeneko. Aurreko alean Partzuergoko postuen enkantearen berri eman genuen. 3.000tik gora lizentzia banatu dira aurten Goierrin. 5 ehiztari besterik ez dira emakumeak. Horietako bat dugu Aramako Maria Rosario Urretabizkaia.



Maria Rosario, Agerre baserriko negutegian.

G.- Noiz eta nolaz hasi zinen ehizean?

E.- Txiki-txikitatik izan dut afizioa. Tiragomarekin ibiltzen nintzen. Askotan, txoria harrapatzea joan eta eskolako ordua pasa egiten zitzaidan. Maisuak zigortu egiten ninduen. Bazkaltzera joan gabe uzten ninduen. Baina nik leihotik jaitsi, etxera bazkaltzera joan, eta maisua etortzerako hantxe egoten nintzen txintxo-txintxo. Maisuak beti esaten zuen: “nik zer egin behar diot ume honi, ze ez diot txoriak harrapatzea joateko ohiturarik kentzen”. Aitonagandik datorkit afizioa. Hark afizio ikaragarria zuen. Aitak ere bazuen eskupeta, eta piska bat koxkor-

tu nintzenean, aitarenarekin ibiltzen nintzen. Hura izan zen nire lehen eskupeta. Beti lizentziarik gabe ibiltzen nintzen, 24 bat urtekin atera nuen arte. Orduan orain baino errazago ateratzen zen.

G.- Lizentzia lortzeko azterketa egin beharraz, zer diozu?

E.- Tontakeria bat iruditzen zait. Ehiztaria denak, txikitatik hemen ibili denak, badakizki hemengo txori motak. Azterketa dirua ateratzeko tresna bat besterik ez da. Beste helbururik ez dauka. Jendea mentalizatzeko balio bala...

G.- Ehiztari baino eskopetero gehiago dagoela esaten da.

E.- Hori egia da. Jendeak zein txori harrapatu behar den, ez dauka kontzientziarik. Txori asko dago kalterik egiten ez duena, kantatu besterik. Horiek ez dute harrapatu beharrik. Ez eta bere garaia ez denean ere. Baina hemen bizio bat sartua dago, hegan egiten duen edozerri tiro egiteko. Hori ez da ehiztaria, eskopetero hutsa da. Ehiztariak botatzen duen txoria, jatekoa izan behar du, eta ez, jateko balio ez eta sasi artera botatzekoa.

G.- Zein ehiza mota gustatzen zaizu gehien?

E.- Usoak gustatzen zaizkit gehien. Oporrik ez dut hartzen, baina etxe ingurutik usoak pasatzen direnez, igandetan joaten naiz Alzaga eta Gaintza-

MAIZTEGI ARMATEGIA

Ehizerako eta arrantzarako tresnak

Urdaneta 21

☎ 88 13 15

ORDIZIA

LEKIM HARROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK

Ibabe industrialdea, 11

☎ 16 12 83

LAZKAO

ra. Enkante edo subastaren munduan ez naiz sartzen. Noiz behinka Madrila joaten naiz, lagun batzuk ditut Toledon, lurrak dituzte eta eperra, konejua, usoa eta gelditzen dena botatzera. Txakurraren atzetik ibiltzea ez zait gustatzen. Hori ere beste afizio bat da. Uso garraian, udazkenean, haizea izaten da, hostoak erortzen dira, zuhaitzei kolorea aldatzen zaie, eta arnasa oso ondo hartzen da. Eta usoa noiz etortzen den, noiz ez...

G.- Batzutan aspergarri xamarra izango da, ezta?

E.- Afizioa edukiz gero, ez. Usoa harrapatza joaten bazara, hantxe geldi egon beharra daukazu, ez daukazu mugitzerik. Hantxe, geldi egon behar duzula kontzientziatuta egon behar da. Pazientzia handia behar da.

G.- Jende asko dago ehizearren aurka.

E.- Jende asko dago baztarrak izurratzen direla, txoriak ez direla hil behar... esaten duena. Baina nik uste dut gauza bat egin behar litzatekeela: paseko garaian ehiza ireki, paseko txoriak, usoa, tortolak, galeperrak, birigarroak bota, eta gero ehizea itxi. Paseko txoria bakarrik harrapatu behar litzateke, eta beste ehiza mota guztiei denbora utzi, berriro ere ugaritu eta hemen bertan ehiza sortu. Hori ez da hain zaila, pazientzia piska bat besterik ez da behar. Benetako ehiztari denak ez dauka zertan minik hartu beharrik urte horietan ehiza itxita badago. Horrela ez bada, dena galduko da eta kanpora joan beharra izango da ehizera. Eta diru asko kostatzen da.



Aizkorriko postu batean ehiza egitea da Maria Rosarioren ametsa.

G.- Jende asko joaten da kanpora, ezta?

E.- Bai, asko eta asko. Diru asko kostatzen da. Lehenago, eskupeta eta kartutxoekin nahikoa izaten zen. Baina orain horrela joanez gero, zenbaiten ondoan erridikulua egiten da. Goitik behera ehizerako jantziekin joaten dira. Erakustera, desfilatza joaten dira.

G.- Zein da zure ehizerako ametsetakoa lekua?

E.- Ehiza hemen egitea gustatzen zait. Aizkorri aldean postu onak daude. Baina zaila da han postua izatea. Ez daukat beste ametsik. Argentinan

lehengusuak ditut eta lau bat aldiz joan naiz hara. Behin Patagoniara jaitsi nintzen, eta pizti ugari zegoen. Han ez da ehizarik egiten, ez dago ohi-turarik. Lehengusuari esaten nion ea eskupetarik ez zeukan. "Zertarako harrapatu? Hori ere beharrezkoak dira", erantzun zidan. Inbidia handia pasatu nuen. Eskupetak garestiak zirelako han, bestela...

G.- Hainbeste gizonetzkoen artean arazorik bai?

E.- Bat ere ez. Nire lana ere, gizonetzkoen artean ibiltzekoa da, ganadu kontrola egiten dut, identifikazioa egiten, eta ohi-tuta nago. Adarra jotzen didate askotan.

G.- Gezurti ugari dago ehiztarien artean.


E.- Bai. Beti eroritzen zaigu txoriren bat sasi artera. Batek usoa bota eta behera datorrenean beste batek tiroa ematen dio. Sesio ugari izaten da. Umeak baino okerrago ibiltzen dira ehiztariak uso bate-

gatik.

G.- Bitxikeria ugari izango dituzu.

E.- Ez, ez ditut asko. Behin gogoratzen naiz, txikia nintzela, txepetxa bat zegoen. Nik ez nuen hil nahi, txantxan-gorria eta txepetxa txori erreginak eta sakratuak baitziren niretzat. Sokorra botatzen hasi nintzen eta jo egin nuen txepetxa, nahi gabe. Lurrera erori eta uretan sartu nuen ea pizten zen. Baina, hilda zegoen. Negarrez hantxe egon nintzen, txepetxak pena ematen zidan eta.


 Loinaz Agirre



Mondeju eta txuleta onak jan nahi badituzu TXERTAKADI sagardotegian duzu zure aukera.

● Ostiral eta larunbatetan erretegia zabalik 9etatik aurrera.

● Astegunetan ere ematen da aurrez eskatu ezker.



ORDIZIA



□ SASIETA MANKOMUNITATEAK edukinontziak jartzeko aurrez ikusitako egitasmoa egi bihurtu du Ordizian ere. Beira eta paperen edukinontzien ondoan, lata, plastiko eta tetrabrik ontzientzako direnak ikusi litezke orain. Goierriko beste zenbait herrietan bezala, taberna inguru batzuetan ez daude, ordea. Adibidez, Etxezarreta eta Santa Maria kaleetan, behar gehien dagoen eta zaborkin gehien sortzen den lekuetan, hain zuzen ere.

□ KUADRILA ARTEKO FUTBITO TXAPELKETA hasi da aurten ere. 23 taldek eman dute ize-na, antolatzaileek bi sailetan banatu dituzte eta partiduak larunbat goizetan jokatu dira Kiroldegian.



bukatzea lortu zuen bakarra izan zen, finalerako klasifikatu ondoren. Estatu mailako rankinean, 14. postuan geratu da.

□ “VILLA-FRANCA” PROBA GALTZEAR OTE? Aurtengo “Villafranca Proba” sonatua egingo ez

ote zen hotsak ere izan ziren. Orain, berriz, datorren urtekoa kolokan da, aidanez, Diputazioak “Txapelgorri” Elkarteari ukatu egin baitio ematen zion dirulaguntza urria: 200.000 pezetatik 500.000ra bitartekoa. Foru Aldundiaren komunikazioak haserrea eragin du “Txapelgorri”n, 10 milioiko aurrekontua baitu nazioarteko proba ospetsuak. Arazoa areagotu egiten da, Gobernuak agindu zuen beste hainbeste laguntza ukatu duenean. Eskean ibiltzetik nazkatu direla adierazi dute antolatzaileek eta, azken irtenbide bezala, antolakuntza “DV”ren kirol organizazioen esku uztea ere burutik pasatzea.

□ OIANGUREN INGURUGIRO ESKOLA Irungo “Denasport” enpresaren kargu gelditu da hurrengo hiru kurtsoetarako, gestioari dagokionean. Berau, azken 3 ikasturtetan “Ekos” enpresaren esku zegoen. Eskola honen helburua ingurugiro-hezkuntzarekin zerikusia duten zenbait ekintza burutzea da. Oiangutik pasatzen diren 1.550 ikasleen kopurua 7.080 izatera pasatuko litzateke.

□ RIKARDO OTEGI ES-KALATZAILE ordiziarrak ezin hobeto eman dio amaiera aurtengo denboraldiari, “Oñatiko II Txapelketa” irabazi eta gero. Bertan, parte hartu zuten 23etatik, prestatutako ibilbidea

 **Aitor Calvillo eta J.A.**



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA
Azken teknika
eta nobedadeak

Solariuma
eta
Lurrindegia

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52 ORDIZIA

iÑABE ERAIKUNTZAK S. A.

Mota guztietako eraikuntzak

Sanperio, 2

☎ 883829

ORDIZIA

Arduradun berria kiroldegian

Araudia gaurkotuz eta Auzoeta Udal Kiroldegiak eskeini behar dituen zerbitzuak indarberritu nahiean, udalak aldaketa batzuk onartu ditu datozen sei hilabeteetarako. Erabilera berri honen arduraduna Pako Urrestarazu da hil honen laz geroztik.

Kiroldegirako txanda hartu edo beste inongo argibiderik nahi duenak, bertara zuzendu edo 180384, kiroldegiko telefonora deitu besterik ez du, aurrez harremanetan jartzeko.

1992ko urtarrilean kiroldegia ireki zenez gero, Jon Etxeberria izan da bertako arduraduna.

Joan zen mendekoa hil da

Joan zen gizaldian jaioetakoa zen azken herritarra hil da. Ataungo zaharrena zen Bidebietako Maria Goikoetxea Imaz, irailaren 28an hil zen. Mariak 94 urte zituen eta 1899. go. urriaren 8an jaioa genuen.

Herriko ohorezko gidaritzaren jabe berria, 93 urte dituen Joxepa Agirre Maiza da orain. Zorionak Joxepa, eta oraintxe bezala Iztatorretik elizara bidean eta, bizkor-bizkor ikus zaitzagula urte askotan.



Joakin Aldabe, Lareon ateratako amuarrainarekin

Arg.: Joxe Begiristain

Lareoko amuarrainak

Ehiztari eta arrantzale amorratua den Joakin Aldabek, berak inoiz ikusi duen amuarrainik haundiena atera zuen joan zen hilaren 24ean Lareon. Luzeran 70 zentimetro eta 4,250 kiloko pisua zituen amuarraintzarrak. Bera baino bizkorragoa den batekin egin zuen

topo oraingoan ordea, eta ia ordu laurden bateko tirabiraren ondoren, napparraren abilezira makurtu behar izan zuen Lareon orain arte ikusi den amuarrain haundienak.

✍ Joxe Begiristain

IDIAZABAL

Soinketa ikastaroa

Kirola praktikatzea gustatzen zaien pertsonen aukera ederra dute aurten ere Idiazabalen, bertako kiroldegian gimnasia ikastaro bat antolatu bait da urritik ekainera bitartean. Zereginak dituzten pertsonen begira, aukera ugari eman dira:

● Goizetan, eta urriaren 3tik aurrera, 8,45etatik 9,45etara izango litzateke ikastaroa, astelehen, asteazken eta ostiraletan. Kuota ordaintzeko garaian ere bi aukera emango dira: dena osorik ordain-

tzea (6.000 pzta) edo bi zatitan (3.500 pzta. aldioro).

● Arratsalde, beste bi aukera daude: bata, urriaren 3tik aurrera, astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dute soinketa, 7etatik 8etara. Bigarrena aukeratzen dutenek, bi egunetan, asteazken eta ostiraletan, 8,15etatik 9,15etara izango dute ikastaroa. Urriaren 5ean hasiko da, 4.000 pezeta ordainduko dira, berau ere osorik edo bi zatitan ordaindu daitekeelarik.

Goiz edo arratsaldeko aukera-

keta horretan, txandakatuz ere egin daiteke, goizez ezin denean arratsaldean joanez, edo alderantziz.

Hitzaldia

Kultur Etxean, urriaren 6-7 eta 12-13-14 egunetan, iluntzeko 7etatik 9etara "Energia Universal y humana" delako ikastaro bat izango da, irundar baten eskutik.

✍ Estitxu Imaz


Ura urtebeteko egokitze fasean

ORDIZIA

Berez, 1993rako zen martxan jartzeko asmoa, baina aurtengo uztailean hasi gara Arriarango ura erabiltzen. Urtegia 35.000 bat biztanleren beharrak betetzeko adinakoa da eta bertatik Segurak ezezik Altzagak, Aramak, Beasainek, Idiazabalek, Itsasondok, Lazkaok, Legorretak, Olaberriak, Ordiziak eta Ormaiztegiak izango dute ura.

Arriarango urtegitik herri hauetara tarteko bonbeoen bidez ailegatzen da ura. Horietako bat Intzabierren dagoena da, eta bertatik Idiazabal eta Segurara doa ura. Honela iristen da Aizkoetako depositora, honek 300.000 litro-tako bi aska ditu eta bertatik banatzen da ura herrira. Guzti honek urtebeteko egokitze fasea izango du, eta ezustekoren bat izanez gero Kotz-mendiko erreserba jarriko litzateke martxan.

Bi hilabete hauetan nabaritu den aldaketa presioarena izan da, batez ere. Lehen batazbesteko 2-3 kilotako presioa genuen herriaren erdigunean eta gaur egun 5-6 kilotakoa. Ideala berriz, 4-5 kilotakoa omen da. Herria nibelean ez egoteagatik presioa handitu edo txikitu egiten da (10 me-



troko kilo bat), honela, herriko puntu altuenetik bajuenera 6-7 kilotako diferentzia dago. Presio aldaketaren ondorioz arazoak espero zitezkeen, baina gauza bitxiak ere gertatu dira. 90 urte dituzten herri barruko tuberietan espero baino arazo gutxiago izan da, eta Akelarre aldean berriz, 14-15 urte dituzten tuberietan eta presio txikiagoa dutenetan, arazoak espero baino handiagoak izan dira. Kalitate kontua ote? Bestalde, sobre-presio arazoren bat sortuko balitz, murrizgarri edo erreduktorearen bat jarri beharko litzateke.

Uraren prezioari dagokionez ere,

gorakada nabaritu da. Lehen herri bakoitzak funtzionamendu propioa zuenez, prezioa ere herriak berak erabakitzen zuen. 1993an metro kubikoa 30 pezeta ordaintzen zen, 94an 50 pezeta ordaintzen da, baina Gipuzkoako uren konsortziokoei erabaki behar dute, eta metro kubikoak 50 pezetatik gora jarriko omen dute.

Baina abantailak ere badira, besteak beste, hornikuntza ziurtatzea, uraren kalitate hobea osasun zein etxeko tresneriarentzat, seguritatea, etab.

Bada beste arazo lazgarri bat, ur kontsumoari dagokiona, hain zuzen. Biztanleko eta eguneko 500-600 litro ur kontsumitzen omen da Seguran, teknikoaren arabera 250-300 litrotakoa izan behar duenean kopuru egokia. Oraindik argitu ez dena zera da, kontrolatu gabeko eskaperen bat ote dagoen, edota larriagoa izango litzatekeena, inongo kontrolik gabe kontsumitzen ote den ura.

 Joseba Telleria

ZEGAMA

Hamabostaldiko ekitaldiak

Urriak 9:

- **Jubilatuen eguna:** 13,00etan meza entzunez hasiko da jubilatuen egun handia. Bazkaria izango dute jarraian, eta egunari amaiera alaia emateko asmoz, Juan Jose Iturriozek bere esku-soinuaren doinurik ederrenak joko ditu.

- **Bideo emanaldia:** arratsaldeko 5etan, "Colmillo Blanco".

- **Futbola:** Kadeteak: Idiazabal K.K.ren aurka Aitzgorri F.K.a. Tolosa C.F.ren aurka Aitzgorri F.K.a, infantilak.

Urriak 12: Arratsaldeko 5etan, bideoa: "Pretty Woman".

Urriak 16: Arratsaldeko 5etan, bideoa: "Soldados de juguete".

Futbola: Arrasate C.D.ren aurka Aitzgorri F.K.a, kadeteak. Eibarta-

rrak F.T.ren aurka Aitzgorri F.K.a, infantilak.

Bestalde, **Eskulan tailerrean** parte hartu nahi duenak, udaletxean eman behar du izena. Matrikula: 1.000 pzta. Oharra: matrikulatzen dena behartua dago egiten diren erakusketetan parte hartzea, bai egindako gauzekin eta bai hauek zaintzen ere.

Maite Ruiz, brontzezko domina Pilota Mundialetan

Maite Ruiz beasaindarrak brontzezko domina lortu du Donibane Lohizunen ospatu berri diren Pilota Mundialetan, bere modalidadea trinketeko paleta eta gomazko pilota zelarrik.

Orain dela 21 urte jaio zen Beasainen. Aita Otaño baserrikoa du eta ama, berriz, Arrieta baserrikoa. Berak bi urte zituenan Urbasaren maldan aurkitzen den Eulate herrira joan ziren bizitzera. 6 anai-arreben artean 4.a da eta bere bi anai zaharrenek erakutsi zioten pilotan jokatzeko 8 urte eskas zituenan.

Berak esanda jakin ahal izan dugu oso gaztetxo zenetik jokatzeko duela euskal jokoan eta 8 urte zituenan hasi zela eskuzko txapelketetan parte hartzen.

13 urte bete bitartean mutilak zituen jolaskide; 11 urte zituela Beloki ezaguna semifinaletan kanporatzea lortu zuen Nafarroako Txapelketan eta ondoren Euskadiko txapeldun izan zen.

Eskuzko pilota utzi eta 18 urterekin palaz jokatzeko hasi zen bere kidea den Susana Munetarekin: Nafarroako txapeldun geratu ziren eta segidan 22 urtez azpikoen mundialetara joan ziren Argentinara. Bertan 3. postu bat eskuratu zuten Eli Lasa eta Maider Mendizabalekin batera.



Eskuinean Maite Ruiz eta ezkerrean bere jolaskidea, Susana Muneta

Aurtengo mundialak oso garrantzitsuak garrantzitsuak izan dira berarentzat; selekzioak ez du inoiz emakumezko aurkeztu trinketean eta, beraz, behe-behetik igotzen joan beharra izan dute; 4 lehenengo taldera iritsi behar ziren semifinalak jokatu ahal izateko. Orain Frantzia, Argentina eta Uruguayrekin batera, lehenengo taldean aurkitzen dira Donibane Lohizunen lorturiko dominari esker. Era honetara urrea eskuratzea errazagoa izango zaie hemendik 4 urtetara ospa-

tuko diren hurrengo mundialetan.

Txanoberritsu

Euskara Batzordeak oraingoan, umeengana zuzendu du bere lana, 6-12 urte bitartekoengana alegia. Urriaren 8an hasi eta abenduaren 17ra arteko larunbat goiz guztietan 9,30etatik 12,30etara jolasak eta iharduera dibertigarrien bidez umeen euskaraz hitzegiteko ohitura sustatuko dute.

Txanoberritsuren txokoa Txindoki institutuan egongo da, bertara igotzeko autobusak jarriko direlarik, haurrak egongo diren geltokietan jaso eta bertaraino eramango dituzte. Haur hauentzako jolasak burutzeko ardura titulu ofizial

eta esperientzia zabaleko begiraleen eskuetan egongo da, 8 umeko begirale bat egongo delarik.

Oraingoz 25 umek eman dute izena baina ekintza aurrera doan heinean ume kopuru handiagoa lortuko dela uste da. Abenduan ekintza honen baliotapena baikorra bada, aurrera jarraituko da proiektu honekin, ikasturtea amaitu arte.

Izaskun Salazar

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA

Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN

JUANITA ARANBURU

OINETAKOAK

Kale Nagusia, 40

☎ 88 01 27

BEASAIN

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfnoa: 88 21 49 BEASAIN

MARI JOSE MERTZERIA

Kinkila-denda

☎ 887267

S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

Linterneritza

Gasa

Berogailuak

BAKARRIK

☎ 88 07 65

908 671542

Igartza Oleta 10

BEASAIN

GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

A SEGUROAK

Esteban Lasa, 3 ☎ 160486 BEASAIN

Herriko neskak futbolari

Legorretan sortu berria den areto-futboleko nesken taldeari buruz gehiago jakitearren, beraiengana jo dugu.

Zeintzuk diren neska hauek?: Miren Rezola, Arantxa Iturrioz, Izaskun Latienda, Laida Oiarbide, Izaro Jauregi, Yara Urtaza, Nerea Goya, Olaia Alegria eta Maria Jauregi. Entrenatzaile lanetan Jondi arituko da eta delegatu bezala, berriz, Aimar Guerrero.

Herritarron diru-laguntza ezinbestekoa izan da taldea aurrera atera ahal izateko. Aitortzen digutenez, aurrekontua ez zen batere xamurra, baina laguntza horri esker denboraldiari ekin ahal izango diote inongo arazo ekonomikorik gabe.

Talde gogorrei aurre egin beharko badiete ere, neska hauek ez diote beldurrik erronka berri honi. Egia esan, sasoirik ez zaie falta, legorretar kastarik ere ez, eta talde barnean arnasten den giro ederrari esker, ziur gaude hortzak erakutsiko dizkietela aurkakoei denboraldi txukuna burutuz.

Dirulaguntzen garrantzia azpimarratu dugu lehenago, baina herritarron babesa ere eskertuko luketeelakoan



gaude. Ikastolan jokatu dute hamabostean behin, larunbat arratsaldetan. Beraz, herritar guztiak gonbidaturik zaudete, neska hauei animoak emateko. Aupa neskak!

Erretiratuen astea

Ospatu berria da jubilatuen astea urtero bezala. Herriko frontoian zenbait txapelketa izan ziren, eta hona hemen

irabazleen izenak: tokan, Julian Garmendia gailendu zen, Julian Aguilar segidan zuela; Juanito Lasa izan zen hoberena igelari tiraka, 2. Felix Bombin; pote modalitatean Manuel Uranga eta Cosme Bolaños.

Josune Amondarain

OLABERRIA

Liburutegia berriro martxan

Umeen eskolaratzearekin batera gure herriko liburutegiak ateak zabaldu ditu berriro. Urrian hasita ordutegia aldatu egin da: arratsaldeko 6.00etatik 7.30etara.

Liburutegia lurre auzoan dago kokatua, Igerilekuaren ondoan eta 4.000 bat liburu daude bertan. Hala ere liburu berriak ekarri dituzte, hala nola, 'El Informe Pelicano', 'La Tapadera', 'Tomates verdes fritos', 'Banqueros de Rapiña Mario Conderi buruzko liburua, etab.

Nahiz eta liburu oso interesgarriak egon zoritxarrez oraindik ez da jende asko gerturatzen bertara. Beraz, nere aldetik, utzi telebista alde batera eta

gozatu ezazue liburuekin, osasungarriagoak dira eta!

Argazki lehiaketa

Urriaren 9rako argazki lehiaketa bat antolatu da, bertan edozein argazkizaleek parte har dezakeelarik. Igandean goizeko 9.00-11.00etara parte hartzaileei karretea emango zaie eta arratsaldeko 3etarako argazkiak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira. Parte hartu nahi dutenek 1.000 pezeta ordaindu beharko dituzte, horren truke karretea eman eta errebelatuko zaie. Lehiaketa ondoren bazkari bat egongo da eta bertan egon nahi dutenek 2.000 pta ordaindu beharko dituzte bazkari eder baten truke.

Lehiaketaren gaia Olaberriako udalerrria izango da eta sariak berriz, ondorengoak dira: 1go saria, 25.000 pta; 2. saria 15.000 eta 3.saria 10.000 pta. Diruaz gain, lehenengo hiru irabazleek trofeo bat jasoko dute. Lehenengo olaberriarrak 10.000 pta eta trofeoa jasoko du. Sari banaketa azaroaren lehen arratsaldeko 6etan izango da Kultur Etxean. Ondoren, urteroko "Gaztiña dastaketa"n parte har dezakezue. Informazio gehiagorako dei 88 14 34 telefonora.

Nagore Goiburu

VI. Gerriko Ikerlan-Sariketa

6. aldiz deialdia luzatu dute jada Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeak. Oinarrien berri emango dizuegu, labur, jarraian:

- Goierri dagokion edozein zientzi alorretako gaia landu liteke.

- Euskarazko lan orijinalak behar dute izan.

- Lanen luzera: gutxienez 100 eta gehienez 200 Din A-4.


- Lanak Goierriko Euskal Eskolako bulegora, 1995eko martxoaren 31 baino lehen heleraziko dira eta epaia maiatzaren azken ostiralean jakin araziko da.

- Sariak: lehena 375.000 pta; bigarrena 275.000 pta eta hirugarrena 175.000 pta.

Informazio gehiago behar izanez gero, dei 16 02 82 telefonora. Beneran aberatsa da Goierri buruz osatzen ari den bilduma; 9 lan, 6 liburutan txukun argitaratuak:

* "Basogintza Goierri XVIII-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhazgabetuetatik Gaurko Pinudietara"... Mikel Sarriegi Etxezarreta.

* "Urbia-Oltzeko Artzantza"... Andoni Aizpuru Murua.



* "Artzantzaz Artzain Familia Batetkin"... Ainhoa Galparsoro Sarriegi.

* "Etnografiatzko ikerlan bat"... Nekane Arratibel Insausti.

* "Meatzaritza Goierri (1850-1950): Aztarnak"... Beatriz Herreras eta Josune Zaldúa.

* "Joan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)"... Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola.

* "Goierriko biztanleria (1860-1986)"... Arkaitz Arruabarrena.

* "Klaudio Otaegi (1838-1890)"... Pello Joxe Aranburu, Mirian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola.

* "Migrazio-mugimenduak Olaberri"... Arkaitz Arruabarrena

Eta beste bi lan datorren urteko apirilean argitaratuko direnak: "Jose Inazio Gerriko Eñaterriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiares esplacacioaren sayaquera (1858)", Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezolarena eta "Sasieta Mankomunitatea. Zabortegi kontrolatua", Garai Arruabarrena.

Babes ofizialeko etxeak

Lazkaoko Udala eta Jaurilaritzaren arteko akordioa dela eta, babes ofizialeko 32 etxebizitza egiteko asmoa dago. Hauetako bat bereganatu nahi dutenek Udaletxean izena eta zenbait datu eman beharko dituzte urriaren 28a baino lehen, goizez 10etatik 12etara eta arratsaldez 17etatik 19etara.

Mari Joxe Madariaga




ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA

Erakusketa
Sukaldeko tresnak



Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

Ana Belén

ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2
88 26 31

LAZKAO



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

KALITATEZKO ELIKADURA
OSASUNAREN OINARRIA

* Janari onak ez du zertan luxu artikulu izanik!
* Eros bertako produktuak! Hauek eskeintzen dizute kalitate onena.

Hiru mendizale goierritar Andeetan

Peio Murua, Andoni Barandiaran eta Aimar Reparazek aurtengo udan zerbait berezia egin nahi omen zuten. Euskal Herriko bai Hego nola Iparraldeko mendiak ongi zapalduz dituztenez, ametsetako Ameriketara bixitatzea erabaki zuten.

Uztailaren 23an agurtu zituzten azken aldiz lagun eta etxeokak eta irailaren 3an besarkatu genituen hirurak Idiazabalgo Benta-Txikin. Bertan ongi etorri berezi bat prestatu baigeneren Gazte Asanbladakook.

Peio ordiziarra dugu, 25 urte ditu eta irakaslea da. Badakigu parranda egitea izugarri gustatzen zaiola, baina horrezaz aparte mendia da berarentzat gozamenik handiena. Andoni lazkaotarra da, 22 urte ditu eta oraindik ez ditu liburuak erabat baztertu. Honentzat, eguraldi txarra egiten duen eguna kiroldegira joatekoa da, nahiz eta "rokodromoak" ez dituen batere atsegin. Aimar idiazabaldarra dugu, 17 urte beteak ditu eta Goierriko Lanbide Eskolan dabil. Kirol gehienak ditu gustokoak: patinetatik hasi, bizikletaz segi eta korrikan, harkaitzean gora denok harriturik uzteraino.

Hirurak ere sasoi bikainean aurkitzen dira eta, Andeetako mendiak igo ondoren, inoiz baino "mendi-gose" gehiagorekin gainera. Hasiera batetan esan digutenez, beste bi ordiziar ere joan behar omen ziren, baina lan arazoengatik ez zen posible izan, aidanez.

5 mendi egin dituzte

Hilabete pasatxo igaro dute Ameriketara eta guztira bost mendi igo dituzte: Urus (5.450 m.), Ishinka (5.530



Aimar, Peio eta Andoni inoiz baino "mendi-gose" handiagoarekin bueltatu dira Amerikatik.

m.), Toclaraju (6.034), Huaskaran (6.768) eta Alpamayo (5.947). Ez dira makalak!

"Lehenengo laurak egitea pentsatuta geneukan, baina 5. horren ordeztu Txopikalki igotzea zen gure nahia. Egun batzuk aurretik enteratu ginen abalantxa asko egon zirela azken honetan, eta, ondorioz, Alpamaiora jo genuen", esan digute. Eguraldia, jendea... denak oso ondo portatu omen zitzaizkien eta berriro errepikatuko omen lukete abentura, ahal bezain pronto.

Bitxikeriren bat kontatzeko eskatu diegu eta hamaika kontu harrigarri ateratu dituzte mahai gainera. Batetik, jendearen itxuraz eta bizimoduaz mintzatu dira, esanez, "sinisteko ikusi egin behar da" eta, bestetik, bi peze-

taren truke edozertarako prest daudela ikus omen daiteke. "Behin, jatetxe batean jaten ari ginela, morroi bat sartu zen eta ondoko mahaiean zegoen emakume bati plateretik oilasko-hezurdura lapurtu zion eta korrika aldegin zuen".

Benta-Txikin ongi etorria

Idiazabalgo Gazte Asanbladarena izan zen idea eta, guztia ondo irten zedin, Aimarren gurasoekin prestatu genuen plana. Aimarren gurasoak Madrila joan behar ziren, hiru mendizaleen bila; herrira iristean, Benta-Txikin egongo ginela hitzeman genuen guk. Lore, auresku, txalo, trikitixa eta muxu artean, merezi bezala omendu genituen Andoni, Aimar eta Peio.

Alaña Galarraga

KEMEN KIROLAK



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

Bertso-saioa Gaintzan: "Herriko putak ala nor alkate?"

Herriko pilotalekua gainezka zela (eserleku guztiak bete eta jende ikaragarri zutik), irailaren 30ean (San Miel festen barruan) bertso-saio berezi bat entzun eta ikusi genuen Gaintzan.

Oholtza gainean, bertso-saio arruntetan ez bezala, organo elektrikoa eta atabalaria zeuden. Saioa hasiera zihola adieraziz, argi guztiak itzali eta bi argi gorri soilik geratu ziren piztuta. Horman, berriz, tarteka aldatzen zituzten diapositiba-argazkiak: Aralar eta Aizkorriko paisaiak, behor, behi, ardi eta ahariak... Megafonia ere zoragarria. Iñaki Murua bertsolaria, oraingoan pregoilari jantzita, atabal soinuaren ondoren "hizketan", kantuan hasi zitzaigun:

"...hau da antzerki baten hasera, bertsotan egingo dena... ta izan bedi hauteskundeen kanpaina aurrerapena".

Pregoilariak lehenengo talde "txuria" aurkeztu zigen. Orain arte alkate izana eta berriz ere hautagai aurkezten zena, Xebastian Lizaso eta bere idazkaria, Jokin Sorozabal. Biak dotore asko jantzita, trajez, alkatea korbata, makila eta zigarro-puru eta guzti. Kontserbadore paperean beren pentsakeraren berri eman zituzten eta apaizaren botoa, ehiztariena eta herritar konkretuena inguratu nahian idazkariari aholkuak ematen ari zuten alkatea. Aipatzekoa da erabili zuten hizkera: idazkariak alkateari berorika eta alkateak idazkariari hika.

Ondoren talde "gorria" aurkeztu zigen pregoilariak: Maddalen Lujanbio alkatetzarako eta Jon Sarasua taldeki-dea. Hauek ere dotore baina kaleko arropaz jantzita agertu zitzaizkigun: kanpaina xumea, herriari zuzendua, preso dau den abertzaleak, emakumea, ekologia, Gaztetxea... aipatu zituzten kopia eta guzti egindako saio bizi-bizian.

Behin talde bakoitzak bere aurkezpena egin ondoren, Iñaki Murua alkatetzarako bi hautagaiak deitu, Xebastian eta Maddalen, eta beren egitarau eta helburuak eskatu zizkien. Aukera apro-



Arg.: Xaldubi

betxatuz, eta entzuten hain ohituak gauden bezalaxe, elkarrri hika-mikan aritu ziren: trapu zaharrak kaleratuz alde batetik, eta, dirua bitarteko, jendea poltsikuratu nahian Lizaso; herritar xumearengana iritsi nahian Lujanbio.

Hurrena, talde "gorri"ko Sarasua herriko putetxera inguratzen da puten botoa lortu nahian: Anjel Larrañaga putapaperean, halamoduz jantzita agertu zitzaigun eta jendearen algara, txistu eta iufarak entzun behar izan zituen. Jon gogor saiatu zen promesen bitartez botoa lortzen, baina botoak bost inporta eta bezeroak ugaritzen saiatu zen Larrañaga "emagaldua". Talde "txuri"ko idazkariak ere putetxean atea jo zuen eta Andoni Egaña putaren botoa lortzen ahalagindu zen. Andonik, moztortuta edo moztortu gabe, ironian eta pixuzko arrazoiak botatzen maixu dela erakutsi zigen berriz ere; orain arteko alkateari buruz adibidez, zera bota zuen:

"...potoloa ta zuria dela duda handirik ez dago: zapaldu denok zapaltzen gaitu ta putak askoz gehiago!"

Segidan bi "lili"ek talde "berdea" osatu eta alkatetzarako aurkeztea erabakitzen dute, bi bertso bukaeretan zera esanez:

"-gure kumeek agintzen ditenez ala guk zergatikan ez?!"

"-putek alkate behar liteken mondejuaren herrian"

Hirukote baten txanda etorri zen. Bi puten ideia horrekin aztoratuta herriko apaiza, Iñaki Murua pregoilari papera utzi eta apaizarena hartuz, organoaren laguntzaz, mesedez zerrendarik ez osatzeko eta alkatetzarako ez aurkezteko eskatzen die "Jainkoaren ize-nean". Putek jolas egiten dute apaizarekin, hau etxekotzat hartuz.

Ondoren "txuri"ek eta "gorri"ek azken aholkuak eman zizkiguten, gorriek "herria aurrera atera zugun / putakeriak utzita" zioten bitartean, txuriek paktorako deia luzatzen zieten gorriei,

talde "berdea" kanpora uzteko helburuz. 3 hautagaitzako 3 hautagaiek, Xebastian, Maddalen eta Andonik, puntutan saiotxo bat egin zuten elkarrri zirika eta bakoitzak bere aldera emaitzak aurreratzeko. "Hauteskunde eguna" iritsi zen horrela eta entzuleok hatzamarra altxatuz geure botoa emateko aukera izan genuen. Dударik gabe putak irten ziren garaile.

Xabier Mendiguren beasaindarra, gidoiaren idazlea oholtzara igo arazi zuen Pello Urretabizkaia ideiarene sortzaileak eta emaitzaz pozik zegoela esanez bi hitz esan zizkigun. Egaña, "Gaintzako alkate berriak", goxo-goxo bertso bat bota zion eta beste bertsolariak ere, oraindik bakoitza bere paperean, agur bana bota zuten. Sarasuarena aukeratuko genuke, azken oina hain zuzen, beste bertsolarien eta entzulego zati handi baten eritzia jasotzen baitu:

"bebingoagatik ondo pasatu eta betirako ahaztu"

Beraz, saio polita ikusi genuen, bertso ederrak entzun genituen, momentu eta egoera bakoitzari ederki egokitutako doinu aldaketa etengabea, eta gustora irten ginen; baina aurrera bitez antzesleak antzesle eta bertsolariak bertsolari eta balora, estima eta goraipa ditzagun bertsolariak egiten dituzten hitz-jokoengatik... Horixe gure eritzia.

Iñaxio eta Joxepa

Gobernu Zuzen eta Eginkorra

EArekin GOBERNU ABERTZALEA



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera:

ISABEL GALLASTEGI

RAFAEL LARREINA

NEKANE ALZELAI

INAXIO OLIVERI

CARLOS GARAIKOETXEA



**eusko
alkartasuna**